

4. FINANTZIAZIOA

Nahiz eta gure ideia pentsatua egon, hau aurrera eramateko kapitala behar dugu. Izan ere, ideia bat enpresa bihurtzeko dirua jartzea oso garrantzitsua da, kapitala gabe ezin delako proiektu bat aurrera eraman. Horretarako, hainbat finantziario mota aztertu ditugu eta egokiena dena *Business angels* erabiltzea da.

Business angels, inbertitzaile pribatuak dira, eta kapitala, esperientzia eta merkatuko kontaktuak ekartzen dituzte. Dirua jartzeaz gain, aholkulari profil bat ere badute eta ekartzen duten know-how-a kapitala bezain garrantzitsua da.

Gure aukera hau izan da, bi arrazoi nagusigatik: dirua eta esperientzia. Batetik, enpresa bat sortzeko lehen pausoak emateko dirua izatea beharrezkoa da eta kapital hori inbertitzaile pribatu honek emango digu. Bestetik, finantzialari hauek sektorean eta zona geografikoan duten esperientzia eta kontaktuak oso baliagarriak izango zaizkigu gure produktuak arrakasta izateko. Horrez gain, gure enpresa zuzentzeko eta beste elkarrekin harremanetan jartzeko lagungarria izango zaigu.

Gure proiektua arrakastatsua izango da hainbat arrazoiengatik. Lehenik, talde bikaina osatzen dugu: ahalmen sortzailea dugu, hau da, diseinu originalak sortzeko gaitasuna dago, berezok erakartzeko ahalmena eta talde lanean aritzeko koordinazio ona. Bigarren, gure bezeroei dagokionez, badakigu gure produktua gehien kontsumituko dutenak gazteak izango direla, izan ere, sexu-produktuen kontsumoak % 83 egin du gora 2021ean. Eta horrek ziurtatzen digu produktua asko salduko dela. Azkenik, gure enpresa martxan jartzeko urte sabatiko bat hartuko dugu, horrela gure proiektuan zentratzeko eta enpresa munduan lehen pausoak emateko.

Gure proiektua aurrera ateratzeko 15.000€-ko finantzazioa behar dugula aurreikusten dugu. Diru kantitate horrekin 1.000 kontsoladore ekoiztea pentsatu dugu. Aparatu bakoitza ekoizteak 15€-ko kostua edukiko duela aurreikusi dugu. 15.000€ horietan gure enpresak edukiko dituen gastu guztiak sartu ditugu: garraioa, txipak erostea, kontsoladoreak erostea...

